

ETA ZAZPIGARRENEAN IKUSI ZUTEN ITSASOA

1 HASTAPENETAN

Tradizioak zioenez izan omen zen lehenik euria eta izan baita ere kristala, handik sortuaz ur tanta, zipristina kristalean zintzilika, zaparradaren arrastoa, kolokan: malkoa.

Eta izan zen orduan haizea. Eta haizeak bultzatu zuen -triste ikusi baitzuen eta goibel- malkoa lurrera (maitasunak ixuritako lehen malkoa omen).


Eskuzabal, onartu omen zuen bere baitan lurrak malkoa, emanaz epeltoki hotzak zenean, emanaz lotoki logale zenean. Eta lo egin omen zuen bertan, epel, malkoak.

Eta sortu zen eguzkia hodeien atzetik, herabe antzean, laztan finez esnaraziz lotaldi sakonean zena. Eta malko hark eta ez bestek, eskerronez, eman omen zion lurrari, oparitzat, lehen fruitua. Eta honek, amazulo, lurpera zabaldu zituen zainak. Eta halako arretaz zaindu zuen eguzkia gurtzearren hedatu zituen eskuak zerurantz, haize kuttuna laztanduz aldi berean.

Eta itzuli zelarik euria, lurreko lehen fruituaren alde eskaini omen zuen oso-osorik bere burua... tradizioak zioenez.

2 ADOBEAREN PAKEAN

Sakratuak zitzaizkien mendiak, eta haiei begira igaro ohi zuten egunero ordu luzerik, otoitz eta kanta zaharrak lau haizetara zabalduz, adobezko etxolen aurrean eserita.



irajoko ahok - urruntzaigu
 nenebilko zoak - urruntzaigu
 urruntzai - urruntzai
 tez itzúlbe - ez itzulbégu

hurbiltzaigu - badolak
 hurbiltzaigu - izardirgak
 hurbiltzai - hurbiltzai
 tez urrúnbe - ez urrunbégu (1)

Gosetzen zirenean,
 jotzen zuten erreka bazte-
 rrera eta Mendi Sakratuetan
 sortzen zen erreka hartan
 edanaz, asetuta gertatzen
 ziren eskuzabalean jasotzen
 zuten ur gardena ezpainetara
 orduko.

Sartaldera, itsa-
 soa hedatzen zen, olatuak
 kontra lehertzen
 etengabe, zurrumurru monoto-
 noz inguru guztia zulatzen
 beti, ortzemugan galtzeraino.



Eta han, bestaldean, inoiz inork gaintitu gabeko Mendi Sa-
 kratuen atzekaldean, bizimodu lasaiko orok egun batez iritsiko zuen
 Jainkoen Erreinua, "Haitz-Gibeleko Paradisua". Hara itzultzen zen
 arratsaldero Berotasun Argiaren (Argitasun Beroaren) Jainkoa, itsa-
 sazpitik barrena, eta handik sortzen zen berriro ere goizero, zuha-
 itzen itzalak, adobezko etxolenak, lurrean marraztuz edo hodeien ar-
 tean ezkutuka. Handik ziren baita ere goratzen Gaueko Jainkoak (2),
 gaua beren argi ilunaz tindatzera.

Mendi Sakratuak eta itsasoaren artean bizi ziren, adobezko
 etxoletan, lasaitasun lasaian.

3 ODOLA

Errekako urak gorritzen hasi ziren. Eta ur hartatik edaten
 zutenean, asetu beharrean, zintzurrean arrain hexurra zeharkatu bali-
 tzaie gisa sentitzen zuten oraingoan, iltzea beren eztarria zulatzen.

Garraisi itoek estali zuten bertako lasaia, otsoitz eta kan-
 ten lekuan goratuz zerurantz, eta beren burua galtzekotan, erotzeko-
 tan ibili ziren denok harat honat, Jainkoak arrazoirik gabe haserretu
 zirelakoan.



bilubada gigautegun t'emalibuk
'hozlo-'gibadu ilarbeetan:
'zaldubabe bimonan? (3)


Baina Jainkoen erantzun
bakarra errekaen gero eta
gorritzenagoak zirudien. Ezin
zuten jakin zergatik, ustega-
beko ofentsaren bat seguraski,
baina haserreturik ziren, ez
zegoen dudarik.

4 HAITZ-GIBELEKO PARADISURANTZ

Ez zegoen beste biderik. Hil behar bazuten, jakin nahi zuten gutxienez arrazoia, eta mendian gora abiatu ziren prozesio luzean, Jainkoekin berriketatzeko asmoz, atzean utziaz adobezko etxola zaharrak eta itsaso zabala. Erabaki ausarta zen, baina ez zegoen beste biderik.

Eta azkenean iritsi zutenean gailurra, nekea gailentzen ari zitzaielarik, hedatu zituzten beren begiradak Haitz-Gibeleko Paradisurantz. Baina lanbro joria ikusi ahal izan zuten bakarrik, itsasoa bezain zabal, guzti ahaltsu, bazter guztiak ezkutatu.

Mendian behera abiatu ziren, laster erreka baten iturria aurkitu zuten arte, bertan atsedean hartzera geldituz. Ase zuten beren egarria. Ezin, ordea, gosea, egun guztia ibili ondoren areagotzen ari zitzaien gosea. Inoiz ere beren buruak kenka horretan ikusi ez bazituzten ere, jakin zuten nola joki, eta geziak eta gezi-uztaiak nola egin eta erabili. Eta tiratzen zuten gezi bakoitzak zerbait jasotzen zuen. Sua piztu zuten haragia erre eta gaua igarotzeko.



Goizean, errautsaren zir-
kuloa utziaz, mendian behera
jarraitu zuten eguna argitu
zueneko.

Azkenean, lanbroa zeharkatu
zutelarik, neurririk gabeko
eremu zabala agertu zitzaien
begien aurrean, baina Jainkoen
Egoitza ez zuten inondik ha-
tzematen, Denak hil bailiran.


Haragi eta ur, bizkarrak zama astunaz horniturik, eremu hondartsu lehor hartan barrena abiatu ziren ordea, adorea galdu gabe, ezin baitzuen oso urruti egon berek bilatzen zutenak.

5 OASIA

Gogor berotzen zuen Eguzkiak, eta masailetan behera ixurtzen ziren izerdi tantak, mundua sortu zeneko malkoa kristaletik lurrera joan zen bezalaxe. Hirugarren arratsaldea zen, itxaropena galtzen ari zirelarik, azkenean urrunean harearen horitasun astuna etetzen zuten puntua ikusi zutenean.

-Jaine!, Jaine!-egin zuten oihu norbaitek-Jainegoia! (4)

Eta denok, orduan, hark seinalatzen zuten alderantz altxatu zuten zamapean makurtuta zeramaten begirada. Eta fardelak lurrean utziaz, belaunikatu ziren, beren orpoen gainean eseri, besoak gurutzatu, burua makurtu, begiak, itxi eta otoitz egin.



hastabu gazuhan koda
Jainegoia pekahan
logo lanluhal
txike enatal Jaunegoia
ausarnadei zuhate!
barnehausar-barnehausar! (5)

Gero, aurrerantz jarraitu zuten bidea lurretik altxatuz, oasira hurbilduz. Baina laster ohartu ziren ez zenaz hura Jainkoen Egoitza. Ez zegoen han perretxiku kapelaren antzeko eraikuntzarik, ezta ere lore gorriko landare luzerik. Are gutxiago enara talderik.

Ikusi zuten, ordea, ur garbiko putzua eta landare oparoko baratzak ugaria, eta poztu zitzaizkien gogoak, bai aurrera jarraitzeko indarrik biltzerik ahal izango zutelakoan zeudenei, bai bertan geratzea lehen unetik erabaki zutenei.

Eta pozaren pozez, ez ziren ohartu alboko kaktus sendoen artetik zelatan zituzten begietaz, eta otordua prestatzeari ekin zioten azken orduetako gosea baretzearren.

6 GEZIAK

Lehen geziak airea zeharkatu zuten, eta taldeko zaharrentako baten bihotzean hondoratu zen. Odola ikusi zutenean, garrasika hasi ziren ingurukoak, eta gezia sortu zen alderantz begiratu zuten denok. Han zeuden, prest gezi-uztaiak tiratzeko, mehatxuka.

Euri jasa bezala erori zitzaizkien geziak, bereak prestatzeko denborarik gabe. Eta ezer ez zutenez ulertzen, babes bila abiatu ziren korrika, atzean utziaz ahaide eta lagun zenbaiten gorpuak, gezi bana bihotzaren erdian.


Babesetik galdatu zuten asmo onez pakea, baina beren hizkuntza ez bide zuten ulertzen besteek. Erdara zakarreko hitz ulergaitzetan gorrotozko ziruditen oihuak egotzi ondoren, gezi jasa berria eskaini zieten, erantzun bakarra.

Kenka hartan, laster ez zuten Eguzki izpiek airea bi aldetara zeharkatzen zuten gezien artetik tokirik izan liskarra argitzera igarotzeko. Gaua zirudien eta ez zen.

Inguruetan ilunabarra hedatzen hasia zelarik, argitu zen beren gainean zerua pixkaren bat, borrokaren amaia seinalatuz. Bazter guztiak odol ziren eta hilotzak. Negar zotin zenbait entzuten zen bakar bakkrik, han hemenka.

Biharamonean, eguna argitu zuenean, bospasei ziren bizirik. Oasiko biztanleak, berriz, hasieratik hogeitik gora bide ez zirenak, gerrarako ondo prestatuak izanarren, hilik ziren denak orain, herri oso baten kontra burrukatu ondoren. Azken odol tantaraino defendatu zuten beren lur puska hura, baina azerturik gabe.

Bizirik zirautenek bidea jarraitzea erabaki zuten, odol- ezko leku hura utziaz Jainkoen Egoitza bilatzen jarraitzea hainbeste zorigaitzen arrazoiak eskatzeko asmoz. Erreka odolteza aski izan ez bailitzan, adiskiderik minenak zeutzan orain odoletan blai, hondar berotan.



7 ITSASOA

Berriro ere, mendi garaiak azaldu zitzaizkien aurrez aurre. Sei egun iraun zuten tontor garaia iristeko, eta zazpigarrenean ikusi zuten itsasoa. Sortalderantz hedatzen eta bertatik Eguzkia goratzen.

Itsas bazterrera jaitsi zirelarik, oasiko bataila ondoren hain eskastua zen beren arraza zaharra sendotu eta ugaritzeko asmoa hartu zuten, eta itsasoa bukatzen zen bazterrerraino, Jainkoen Egoitza azkenik topatzera eramango zituen ontzi haundia eraikitzeari ekin zioten gogoz, urrunean ikus baitzitezkeen, zeruan gora, "Jainegoia"ko tximiniatik ihesean bezala, enarak.

hastabu gazuhan koda...

DHARRAK:

- (1) Irainez jositako ahoak, urrun zaitezte gugandik; negarrek bildutako zotinak, urrun zaitezte gugandik; urrun zaitezte, urrun zaitezte, eta ez itzuli berriro, ez itzuli berriro gugana.
- Hurbil zaitezte gugana, basoko doinu lasaiak; hurbil zaitezte gugana, izarren dirdir garaiak; hurbil zaitezte, hurbil zaitezte, eta ez urrundu berriro, ez urrundu gugandik.

- (2) Ilargi betetik ilargi betera bitarteko gau bakoitzako ilargiaren faseari Jainko ezberdina zeritzoten, Nor bere atributoekin, bere izen berearekin. "Ilarbeetan", ilargi berri gauetan, Jainko Zaindaririk gabe gertatzen zirelakoan, ahozpezka lo egiten zuten, peril guztiei bizkar emanaz.
- (3) Bizar luzeak badaramatzate gizonezkoek gau eta egun, eta emakumezkoek librean bularrak; ahozpezka lo egiten badugu ilargi berri gauetan: ez al dugu bada betetzen bizimodu ona?
- (4) Jainkoen Egoitza!, Jainkoen Egoitza!
- (5) Hasierarik eta bukaerarik gabeko zubian kokatua dago Jainkoen Egoitza, perretxiku kapelaren antzekoa, lore gorriko landare luzearen aldean tximiniatik -kea- enara taldea: Jainkoen Egoitza. Ausartzen naiz deitzera zure atera! Barka nere ausardia, barka nere ausardia!

Imanol ZURUTUZA. "Eta zazpigarrenean ikusi zuten itsasoa." Behin bitan.
Elkar argitaletxea. Fuskal Literatura ipuinak. 31. Donostia 1985.

(Marrazkiak: Mikel Susperregi)

